

Batzuek zazpi segundo behar dituzte kanal batetik bestera joateko

TDT sintonizagailuak (lurreko telebista digitala)



TRESNARIK GARESTIENAK EMAN DITU LABORATEGI-EMAITZA TXARRENAK ETA JENDEARI ERE HURAXE GUSTATU ZAIO GUTXIEN. GEHIENAK EZIN DIRA ERABAT ITZALI, ETA, BERAZ, ASKOZ ELEKTRIZITATE GEHIAGO KONTSUMITZEN DUTE

Telebista analogikoa behin betiko itzaltzear dago Espainian. Bi urte igaro baino lehen, lurreko seinale digitalaren bidez iritsiko dira telebista kateen emankizunak (TDT bidez, alegia). Kate gehiago ikusteko aukera izango da, baina telebistazaleek egokitu egin beharko dute, ezinbestean: seinale horiek harrapatzeko tresnak erosi beharko dituzte edo telebista berriak, sintonizagailu eta guzti datozenak. Antena egokitzea ere beharrezko izango da, baina hori, gehienetan, etxjabe elkartearen esku geratzen da.

Zortzi TDT sintonizagailu eraman ditugu laborategira, eta erabilera proba ere egin diegu. 38,90 euro balio izan dute merkeenek, Puffins eta Sunstech etxekoek, eta 69 garestienak, Axil etxekoak (hain zuzen, horrek lortu du emaitzarik txarrena erabilera proban). Kalitate-prezioak aintzat hartuta, Televis etxekoa nabarmendu da besteen gainetik: erdi pareko prezioa du (55,50 euro), besteek baino hobeto funtzionatu du seinalea hartzerakoan, irudien kalitatea ere besteek baino hobea eman du, eta bigarren geratu da erabilera proban (8,1 puntu eman dizkiote 10etik). Gainera, gutxien kontsumitzen duenetakoa da, eta erabat itzal daiteke.

Axil sintonizagailuak kontsumitzen du gehien (10,6 W martxan dagoela, eta 9,8 W pausaldian); martxan jarrita, Sanyo etxekoak behar du energia gutxien (4,8 W), eta pausaldian, ►



KONTSUMITZAILEEN IRITZIA

Tresna horiek erabiltzeko ohitura duten zortzi erabiltzaile hautatu, eta zortzi sintonizagailu digitaletako bakoitza erabiltzeko eskatu diegu, eta zenbait alderdiri puntuak emateko, 1etik 10era. Tresna guztiek gainditu dute proba hori, baina alde nabarmenak izan dira batzuen eta besteen artean. Erabiltzaileei Philips etxekoa gustatu zaie gehien (8,4 puntu 10etik): eroso eta erabilerraza iruditu zaie, eta asko gustatu zaizkie produktuaren aurkezpena eta kanpo itxura. Axil etxekoa, berriz, beste guztiak baino deserosoagoa iruditu zaie, okerrago hornitua, argibide ilunenak dituen eta irudi kalitate txarra ematen duena. Ondorioz, tresna horrek lortu ditu puntu gutxi (6,9). Televés etxekoari 8,1 puntu eman dizkiote, eta asko eskertu dute argibide ulerterrazak ematea, ongi hornitua egotea eta irudi kalitate ona eskaintzea. Sanyo-k hogeiki kate soilik harrapatu ditu, eta beste guztiek 25. Puffins etxeko tresnari 7,7 puntu eman dizkiote erabiltzaileek, eta merkeenetakoa izan arren, emaitza oso ona ateratu du, onenetakoa.

Televés etxekoak (2,2 W). Energia aurrezteko, ordea, tresna itzaltzea izaten da onena erabili behar ez denean. Aztertu ditugun zortzi tresnetatik bost ezin dira itzali (Philips, Sanyo, Puffins, Siemens eta Axil), soilik pausaldian jar daitezke edo stand by egoeran. Tresna horiek argindarrik kontsumitu ez dezaten, deskonektatu egin behar dira (loka ateratu). Har dezagun kontuan familia bakoitzak, batez beste, hiru ordu eta erdi ikusten duela telebista egunean, eta egin ditzagun kalkuluak. Erabat itzaltzen diren hiru tresnetako edozein egunero lau orduz piztuta edukiko bagenu eta 20 orduz itzalita, urtebete osoan, euro bat gastatuko luke elektrizitatetan. Axil sintonizagailuarekin, aldiz, 9,75 euro beharko genituzke urtean, pausaldian egiten dituen 20 orduetan kontsumitzen duenaren eraginez. Espainian, guk aztertu ditugun sintonizagailuen moduko 5,5

milioi daude, eta urtearen buruan 24 milioi euro aurrezteko modua egongo litzateke halako tresnak itzali ahal izanez gero (elektrizitate kontsumo guztiaren % 0,08).

Ezohiko funtzio eta osagarriak

Tresna guztiek badute teletestua, kateak bilatzeko sistema automatikoa edo azpitoluuntzako euskarria (kate askok jatorrizko bertsioan ematen dituzte TDT bidezko filmak, azpitolu eta guzti, hala nahi duenarentzat); horiez gain, ordea, beste zenbait funtzio gehigarri ere baditu tresna bakoitzak, irudia izoztu edo gelditzeko aukera, adibidez (Philips eta Axil etxekoek izan ezik, beste guztiek badute). TDT bidez jolasak emateko aukera ere badute orain telebista kateek, eta guk aztertu ditugunetatik, lauk eskaintzen dute funtzio hori: Bestbuy, Puffins, Sunstech eta Televés etxeetakoek. Funtzio gehien Televés etxekoak eskaintzen ditu; kanalak automatikoki ordenatzen ditu (Axil etxekoak ere bai), eta irudia handitzeko aukera ere badu (zooma). PIP (Picture in Picture) funtzioa duen tresna bakarra egokitu zaigu, Axil etxekoa, eta horri esker, aldi berean bi kate ikus daitezke (erabilgarria da iragarki tarteetarako).

Axil, Televés, Sunstech, Philips, Puffins eta Bestbuy etxeetako tresnek soinu irteera digitala dute, eta, hartara, "home cinema" tresnetara konektatzeko aukera ona eskaintzen dute. Sanyo eta Siemens etxekoek soinu irteera analogikoa dute, eta Televés eta Axil-ek ere badute aukera hori. Guztiek dakarte argibide liburua eta urrutiko kontrolagailua, pila eta guzti. Philips eta Siemens etxekoek kable eurokonektorea ere eskaintzen dute (ezinbestekoa da tresna telebistari lotzeko), eta Axil etxekoak, antena kable txiki bat. Pisuan eta neurrian alde handia dago tresna batetik bestera (Axil-ek 1,10 kg eta Philips-ek 350 g), baina alderdi horrek ez du aparteko garrantzirik, behin instalatu ondoren ez baita tresna hara eta hona mugitzen ibili beharrik.

Urrutiko kontrolagailua

TDTan telebista kate gehiago ikusi ahal izaten da, eta, segur aski, lehen baino gehiago erabili beharko dugu urrutiko kontrolagailua. Baina sintonizagailu guztiek ez dute denbora bera behar izaten kate batetik bestera joateko. Philips-ek 3,53 segundo behar ditu, eta Puffins-ek ia zazpi segundo. Kontrolagailuaren zenbakiak sakatuta

MARKA	TELEVÉS	SUNSTECH	PUFFINS	PHILIPS	SANYO	SIEMENS	BESTBUY	AXIL
Modeloa	DTR 7287	DTB-2500	Set Topbox PF-501-M	DTR 220	TU-X700	Gigaset M270 T EPG	Easy Home TDT	RT 162
Prezioa (euro/bakoitzak)	55,50	38,90	38,90	50,81	47,40	57,40	39,90	69
INFORMAZIOA ETA ETIKETAK								
Informazioaren edukia	Egokia	Egokia	Egokia	Egokia	Egokia	Egokia	Egokia	Egokia
Letra-zenbakien iraunkortasuna	Egokia	Egokia	Egokia	Egokia	Egokia	Egokia	Egokia	Desegokia
EZAUGARRI OROKORRAK								
Ezohiko funtzioak¹	LCN, jolasak, zooma, Irudia gelditzeko aukera	Jolasak Irudia gelditzeko aukera	jolasak, Irudia gelditzeko aukera		Irudia gelditzeko aukera	Irudia gelditzeko aukera	jolasak Irudia gelditzeko aukera	LCN, PIP,
Ezohiko osagarriak²				Kable eurokonektorea eta antena kablea	Kable eurokonektorea	Kable eurokonektorea		Antena kable txikia
Neurriak TDT (cm)	27,9x4,2x16,3	12x4,2x17,2	16,9x4,1x15,4	19,8x3,3x 9,7	22,8x4x16,5	25,9x3,7x14,9	22x4,3x17,3	29,4x3,5x19
TDTaren pisua (g)	1.000	750	900	350	750	650	750	1.100
Kontrolagailuaren neurriak (mm)	5,2x18,2x2,3	4,9x15,1x 2	4,8x16,5x2,6	5x14x2,2	5x15,9x2	4,7x17x2,2	4,4x15,2x2,2	4,1x17,7x1,8
Kontrolagailuaren pisua (g)	91	72	72,8	74,8	70,5	76,6	70,4	80
Ezohiko konexioak³	RS-232, Bi soinu irteera (digitala eta analogikoa)	RS-232, Soinu irteera digitala	RS-232, Soinu irteera digitala	Soinu irteera digitala	Soinu irteera analogikoa		RS-232 Soinu irteera digitala	Bi soinu irteera (digitala eta analogikoa), Bigarren RF sarrera, Bigarren RF irteera
Itzaltzeko botoia	Bai	Bai	Ez	Ez	Ez	Ez	Bai	Ez
Elektrizitate kontsumoa, martxan dela (W)	6,6	7,5	7,4	5,6	4,8	7,4	7,3	10,6
Elektrizitate kontsumoa, pausaldian dela (W)	2,2	6	3,7	4,2	3,6	6,9	5,9	9,8
Elektrizitate kontsumoaren gaineko kalkulua⁴ (euro/urteko)	1	1,14	4,20	4,34	3,72	6,86	1,11	9,75
SEGURTASUNA								
Segurtasun elektrikoa⁵	Egokia	Egokia	Egokia	Egokia	Egokia	Egokia	Egokia	Egokia
Berotan nolako erantzuna ematen duten⁶	Egokia	Egokia	Egokia	Egokia	Egokia	Egokia	Desegokia	Egokia
Temperatura, haizeztatze zuloak itxita⁷	Egokia	Egokia	Egokia	Egokia	Egokia	Egokia	Egokia	Egokia
BETERAGARRITASUN ELEKTROMAGNETIKOA								
Deskarga elektrostatikoei molako erantzuna ematen duten⁸	Egokia	Hobetzeko modukoa	Hobetzeko modukoa	Hobetzeko modukoa	Egokia	Egokia	Egokia	Hobetzeko modukoa
Talka-uhinei nolako erantzuna ematen duten	Egokia	Egokia	Egokia	Egokia	Egokia	Egokia	Egokia	Egokia
ERABILTZEKO EGOKIAK DIREN EDO EZ								
Kateak aldatzeko azkartasuna (segundotan)⁹	5,75	4,81	6,91	3,53	3,9	3,94	5,37	4,71
Konektagailuen tenkatzeari zer erantzun eman dioten	Egokia	Egokia	Egokia	Egokia	Egokia	Egokia	Egokia	Egokia
Kontrolagailuko grafia ezabaezina den edo ez¹⁰	Bai	Bai	Ez	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai
Kontrolagailua erortzera utzita zer erantzun eman duten	Egokia	Egokia	Pilen tapa askatu zaio	Egokia	Egokia	Pilen tapa askatu zaio	Egokia	Egokia
Kontrolagailuaren funtzionamendu-angelua¹¹	53°	53°	53°	53°	68°	36°	53°	53°
KALITATE OROKORRA								
ERABILERA PROBA (1etik 10era)	8,1	7,4	7,7	8,4	7,6	8	7,4	6,9

(1) **Ezohiko funtzioak.** Zenbait funtzio TDT guztiek eskaintzen dituzte: teletestua daukate; menua pantailan ikus daitezke; gurasoei blokeatzeko aukera ematen diete, seme-alabek nolani ere erabil ez ditzaten... Taula honetan ageri diren funtzioak ez datoz TDT guztietan: LCN edo kateak automatikoki ordenatzeko aukera, PIP edo aldi berean bi kate ikusteko aukera, irudia izoztu edo gelditzeko aukera... (2) **Ezohiko osagarriak.** Guztiek dakartate argibide liburuxkak, urrutiko kontrolagailua eta harentzako pilak. Taula honetan ageri diren osagarriak ez datoz TDT guztietan. (3) **Ezohiko konexioak.** Guztiek daukate RF sarrerak, RF irteerak (beste antena-irteera bat edukitzeko aukera ematen du; adibidez, bideo batentzat), bi eurokonektore. Taula honetan ageri diren konexioak ez datoz TDT guztietan. (4) **Elektrizitate kontsumoaren gaineko kalkulua.** Honela egin dugu kalkulua: demagun tresna bakoitza egunean 3,7 orduz egoten dela martxan, eta demagun orduko, 0,11 euro kostatzen dela elektrizitate kW bakoitza. Tresnak itzaltzeko botoia badauka, deskonektatu egiten da ikusten ari ez garenean. Botoirik ez bada, irudia pausaldian geratzen da (stand by), eta elektrizitatea kontsumitzen jarraitzen du. (5) **Segurtasun elektrikoa.** Segurtasun elektrikoaren araudia zenbateraino betetzen duten aztertu dugu (UNE-EN 60065:2003 araudia da). Honako alderdi hauek egiaztatzen ditugu: zati aktibotarako zer-nolako irispideak dituen, zenbat berotzen den, zirkuitu labur baten ondoren zenbat berotzen den, tentsio gehiegia nola erantzuten dion (tximistak jotzen badu), eta zenbateko zurruntasun dielektrikoa duen. (6) **Berotan nola erantzun dute.** Tresnak 70 °C-tan jarri ditugu, eta deformatzen ote diren aztertu dugu. Bestbuy etxekoari pantaila hegala harrotu zaio. (7) **Temperatura, haizeztatze-zuloak itxita.** Hainbat tresna leku berean jarri ditugu, haizeztatze-zuloak itxita, eta zenbateraino berotu diren aztertu dugu. (8) **Deskarga elektrostatikoei nolako erantzuna ematen dioten.** Sunstech, Philips, Puffins eta Axil etxeetako tresnetan irudiak gorabehera batzuk izan ditu deskargak egin ditugunean, baina, behin bukatuta, bere onera etorri da irudia. (9) **Kateak aldatzeko azkartasuna.** Urrutiko kontrolagailuko zenbakiak eraginda egin dugu proba, ez kateak banan-banan igotzeko botoiekin. Zenbaki-botoiekin denbora gehiago behar izaten dute. (10) **Kontrolagailuko grafia ezabaezina den edo ez.** Disolbagarri bat eta liz-papera erabili ditugu proba. Liz-paperekin, ezabatu egin dira Puffins etxeko kontrolagailuaren grafia, eta Sunstech, Bestbuy, Philips eta Axil etxekoak tonua argitu zaie. (11) **Sintonizagailutik hiru metrora jarri ditugu kontrolagailuak, aurrez aurre, eta alboetara eraman ditugu poliki-poliki, harik eta seinalea iritsi ez den arte.**

BANAN-BANAN: 8 TDT SINTONIZAGAILU

TELEVÉS
DTR 7287

Prezioa: 55,50 euro

Kalitate orokorra: Bikaina

➔ Kalitate-prezioetan, hau da onena

Mosaiko eta zoom funtzioa duen bakarra da. Honek kontsumitzen du gutxien pausaldian dagoela, eta tresna erabat itzaltzeko botoia ere badu. Bi soinu irteera ditu (digitala eta analogikoa).

Erabilera proba: 8,1 puntu 10etik. Erabiltzaileen iritziz, hau etorri da ongien hornitua, eta argibideetan ere hau izan da onenetakoa: ulerterrazak eta erabilgarriak iruditu zaizkie.

SUNSTECH
DTB-2500

Prezioa: 38,90 euro

Merkeena izan da, Puffins-ekin batera

Kalitate orokorra: Oso ona

Jolasak ditu eta etenaldiak egiteko aukera. Asko samar kontsumitzen du, baina tresna erabat itzaltzeko botoia duen bakarretakoa da.

Erabilera proba: 7,4 puntu 10etik. Tresna honen kanpo itxura gustatu zaie gutxien erabiltzaileei, eta martxan jartzeko modua eta eskaintzen dituen funtzioak ere besteenak baino okerragoak iruditu zaizkie.

PUFFINS
SET TOPBOX
PF-501-M

Prezioa: 38,90 euro

Merkeenetakoa da

Kalitate orokorra: Oso ona

Ez du tresna erabat itzaltzeko botoirik. Jolasak dakartza eta irudia izoztu edo gelditzen du. Soinu irteera digitala dauka. Deskarga elektros-tatikoak egin dizkiogunean, irudiak zenbait gorabehera izan ditu. Urrutiko kontrolagailuari pilen tapa askatu zaio 100 aldiz lurrera erortzen utzi ondoren (metro erdiko altueratik bota dugu).

Erabilera proba: 7,7 puntu 10etik. Tresna biltzeko zorroa eta aurkezpena ez zaie askorik gustatu. Ez diote antzeman nabarmentzeko moduko ezer, baina emaitza onak lortu ditu.

PHILIPS
DTR 220

Prezioa: 50,81 euro

Kalitate orokorra: Oso ona

Bi urteko bermea eskaintzen du eta kable eurokonektorea dakar. Ez du botoirik tresna itzaltzeko. Soinu irteera digitala dauka. Deskarga elektros-tatikoak egin dizkiogunean, irudiak zenbait gorabehera izan ditu, baina bere onera etorri da gero.

Erabilera proba: 8,4 puntu 10etik. Honek lortu du emaitza onena: kanpo itxura gustatu zaie asko, konektatzeko eta martxan jartzeko erraza iruditu zaie, eta erabiltzeko erosoa.

SANYO
TU-X700

Prezioa: 47,40 euro

Kalitate orokorra: Oso ona

Irudia izoztu edo gelditzen du. Kable eurokonektorea dakar, eta antena kablea ere bai. Honek kontsumitzen du gutxien martxan dagoela, baina ez du botoirik tresna itzaltzeko. Soinu irteera analogikoa eta digitala dauka. Deskarga elektros-tatikoak egin dizkiogunean, irudiak zenbait gorabehera izan ditu, baina bere onera etorri da gero.

Erabilera proba: 7,6 puntu 10etik. Irudi kalitate ona ematen duela nabarmendu dute erabiltzaileek, baina 20 kate soilik harrapatzen ditu (beste guztiak 25).

SIEMENS
GIGASET
M270 TEPG

Prezioa: 57,40 euro

Kalitate orokorra: Oso ona

Etenaldia egiteko aukera ematen du. Kable eurokonektorea dakar. Ez du botoirik tresna itzaltzeko, ezta soinu irteera digitalik ere. Urrutiko kontrolagailuari pilen tapa askatu zaio 100 aldiz lurrera erortzen utzi ondoren (metro erdiko altueratik bota dugu).

Erabilera proba: 8 puntu 10etik. Emaitza ona lortu du aztergai ziren alderdi guztietan. Argibideak oso erabilgarriak eta ulerterrazak iruditu zaizkie, besteenak baino gehiago.

BESTBUY
EASY HOME
TDT

Prezioa: 39,90 euro

Kalitate orokorra: Oso ona

Etenaldia egiteko aukera eskaintzen du, eta jolasak ere baditu. Martxan dagoela, gehien kontsumitzen duenetakoa da, baina honek, behintzat, badu tresna itzaltzeko botoia. Zazpi orduz 70 °C-tara egon ostean, pantaila hegala harrotu zaio. Soinu irteera digitala dauka.

Erabilera proba: 7,4 puntu 10etik. Oro har, tresna hau iruditu zaie horridura kaskarrenetako, Axil etxekoarekin batera. Irudi kalitatea, ordea, bikaintzat jo dute (10 puntu eman dizkiote, Televés etxekoari bezala).

AXIL
RT 162

Prezioa: 69 euro

Garestiena izan da

Kalitate orokorra: Ona

Kateak automatikoki ordenatzen ditu, eta bi kate aldi berean ikusteko aukera ematen du (bakarra da horretan). Antena kablea du. Pausaldian dagoenean, honek kontsumitzen du gehien, eta ez dauka botoirik tresna itzaltzeko. Deskarga elektros-tatikoak egin dizkiogunean, irudiak zenbait gorabehera izan ditu, baina bere onera etorri da gero. Bi soinu irteera ditu, digitala eta analogikoa.

Erabilera proba: 6,9 puntu 10etik. Besteak baino deserosoagoa eta zailagoa iruditu zaie erabiltzeko, eta irudirik txarrena ere honek ematen duela esan dute.

egin dugu proba, kateak banan-banan igo edo jaisteko botoiekin ez baitute hartzen hainbesteko denborarik.

Urrutiko kontrolagailu guztiak ez dira berdin sendoak, eta hori neurtzeko proba hau egin dugu: ehun aldiz utzi ditugu erortzen, sofatik lurrera joango balira bezala. Guztiak ongi erantzun diote probari, baina Siemens eta Puffins etxekoei pilen tapak askatu zaizkie. Seinale infragorriaren eraginkortasuna ere ez da bera izaten kontrolagailu guztietan, angelu batzuetatik ez baita iristen sintonizagailura. Aurrez aurre jarrita, guztiak ongi funtzionatu dute, baina seinalea alboetatik bidalita, batzuek ez dute egin. Prozedura hau erabili dugu hori egiaztatzeko: sintonizagailutik hiru metrora jarri ditugu kontrolagailuak, aurrez aurre, eta alboetara eraman ditugu poliki-poliki, harik eta seinalea iritsi ez den arte. Siemens-ek eman du funtzionamendu-angelu txikiena (36 °-koa; metro bat baino gutxiago alboratuta, funtzionatzeari utzi dio), eta Sanyo-k handiena (68 °-koa). Beste bostek metro eta erdi alboratutakoan utzi diote funtzionatzeari (53 °).

Kontrolagailuen letrak eta zenbakiak ezabaezina diren ere aztertu dugu. Zortzi gailuek gaintu dute lehen proba (hexano izeneko disolbagarri organiko batean zapia busti eta igurtzi egin ditugu, 15 segundoz), baina ez bigarrena. Liz-paperekin igurtzi ditugu bost segundoz, eta Siemens, Televés eta Sanyo etxekoek soilik gaintu dute proba. Puffins etxeko kontrolagailuari ezabatu egin zaizkio grafia guztiak, eta gainerakoek tonu pixka bat galdu dute (Bestbuy, Axil, Philips eta Sunstech).

Segurtasuna eta bateragarritasun elektromagnetikoa

Tresna guztiak gaintu dituzte proba elektrikoak, eta seguruak direla esan beharra dago. Segurtasun elektrikoaren araudiari jarraituz eginak daudela egiaztatu dugu, eta beste bi proba ere egin dizkiegu. Berogailu baten barruan sartu ditugu 7 orduz, 70 °C-tara, eta bat bera ere ez da deformatu, eta ongi funtzionatzen jarraitu dute gero. Bestbuy etxekoa izan da salbuespena (pantaila hegala harrotu zaio). Tresnak zenbat berotzen diren ere aztertu dugu, batik batik gaizki haizeztatuta egon litezkeen lekuetan. Siemens etxekoa berotu da gehien, baina guztiak gaintu dute proba.

Deskarga elektrostatikoren bat gertatuz gero, sintonizagailuek kalteak jasan ditzakete, eta guk aztertu nahi izan dugu nola erantzuten dieten tresna horiek halako gorabeherari. Berrogei deskarga inguru egin dizkiogu tresna bakoitzari, leku desberdinetan, eta guztiak erantzun dute ongi. Sunstech, Philips, Puffins eta Axil etxeko tresnetan, hala ere, gorabeherak izan ditu irudiak deskarga egiten ari ginenean; deskarga bukatuta, berriz, bere onera etorri da irudia.

Kalitate orokorra

Proba guztiak egin ondoren, emaitza guztiak neurtu eta alderatu ditugu, eta horrela jakin ahal izan dugu zein sintonizagailu den onena tekniko-ki. Garestienak lortu du emaitza orokorrik kaskarrera, Axil etxekoak (6,8 puntu 10etik). Beste zazpi tresnek 7 puntu baino gehiago atera dituzte, eta, gehien, Televés etxekoak: 8,1 puntu. ◀

- ✗ Zortzi TDT sintonizagailu aztertu ditugu. 38,90 euro balio izan dute merkeenek, Puffins eta Sunstech etxekoek, eta 69 euro garestienak, Axil etxekoak.
- ✗ Guztiak dute aukera tresna pausaldian jartzeko (stand by), baina hiru soilik itzal daitezke erabat (Televés, Sunstech eta Bestbuy), eta, beraz, ez dute argindarrik kontsumitzen erabiltzen ari ez garen. Itzali gabe uzten den sintonizagailu batek, Axil etxekoak, adibidez, 9,75 euro gastatzen ditu urtean elektrizitatean, eta itzaltzen den batek, berriz, euro bakarra (Televés etxekoak, adibidez).
- ✗ Philips eta Axil-ek izan ezik, beste guztiak irudia izozten edo gelditzen dute. Televés, Sunstech, Puffins eta Bestbuy etxekoek jolasak dakartzate. Televés-ek zooma dauka, eta kateak automatikoki ordenatzen ditu. Axil-ek ere automatikoki ordenatzen ditu kateak, eta, gainera, aldi berean bi kate ikusteko aukera ematen du.
- ✗ Philips da azkarrena kate batetik bestera joaten (3,53 segundo) eta Puffins mantsoena (6,91 segundo). Siemens-en kontrolagailuak ez du funtzionatzen metro bat alboratuz gero. Sanyo-renak, berriz, bi metro alboratuta ere funtzionatzen du. Siemens-en eta Puffins-en kontrolagailuei pilen tapa asakatu zaie 100 aldiz lurrera erortzen utzi ondoren (metro erdiko altueratik bota ditugu).
- ✗ Philips gustatu zaie gehien kontsumitzaileei (8,4 puntu hamarretik); pisuz eta neurritz oso egokia iruditu zaie (guztietan arinena da), itxura ederrekoa eta erabilerraza. Televés eta Bestbuy etxekoek eman dute irudi kalitate onena. Axil-ek lortu du emaitzarik txarrena (6,9 puntu), deserosoa delako eta eskas antzean hornitua.
- ✗ Prezio-kalitateak aintzat hartuta, Televés etxekoa da aukerarik onena. Erdi pareko prezioa du, energia gutxi kontsumitzen du, tresna itzaltzeko botoia dauka eta emaitzarik onenetakoa lortu du erabilera proban. Bi soinu irteera ditu, eta besteek ez dauzkaten zenbait funtzio: kateak automatikoki ordenatzen ditu eta zooma du.

